



XIX. Gerriko Ikerlan Beka

Goierrri, 2019

Oinarriak

1. Ikerketarako beka-deialdi honetan edozeinek har dezake parte. Bakarka nahiz taldeka egin daitezke ikerlanak.
2. Ikerlanaren **gaia** Gipuzkoako Goierri dagokion edozein zientzi alorretakoa izan daiteke: antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasuna, industria, nekazaritza, biologia, historia, ekonomia, medikuntza, ingeniari-tza, zuzenbidea, pedagogia, psikologia, filosofia, informatika eta abar.
 - Herri-mailakoa nahiz eskualde-mailakoa izan liteke.
 - Edozein garitako ikerlanak onartuko dira.
 - Herri buruzko monografiak ere aurkez daitezke.
3. **Euskarazko**, eta ez euskarara itzulitako, ikerlan originalak, beste inon saritu eta argitaratu gabeak, izan behar dute ikerlanek.
4. Proiektuak izenburuaren bidez soilik **identifikatu** ahal izango dira. Ez dute, beraz, egilea nor den antzemateko biderik eman dezakeen xehetasunik agertuko.
5. **Eskaerak**. 2020ko urtarrilaren 17rako, eguerdiko 12:00etarako, aurkeztu beharrekoak hauek dira:
 - 5.1. Proiektu zehatza (15 bat orrialdekoa):
 - i. Ikerketa esparrua.
 - ii. Izenburua eta hipotesia.
 - iii. Materialak eta lan-metodologia.
 - iv. Helburuak.
 - v. Ikerlanerako plana.
 - vi. Ikerlanaren interesa.
 - vii. Bibliografia.
 - 5.2. Kartazal itxian, kanpoaldean, proiektuaren izenburua eta, barnean, ikertzailearen edo ikertzaileen datuak:
 - i. Naren kopia.
 - ii. curriculum vitae.
 - iii. harremanetarako helbideak (helbide postala, helbide elektronikoa, telefonoa).
6. Aukeratzen diren ikerlan proiektuek hiru puntuok **kontuan izanda** egin beharko dute lana:
 - b. Edukia zientifikoki azaldu: dokumentatu, gaurkotutako metodologia adierazi eta erabili, agertuko dituen datu guztiak eta bakoitza nondik jasoa den argi eta garbi zehaztu eta hipotesi zehatza eman.
 - c. Ikerlana, ISO arauen arabera aurkeztutako material grafiko eta bibliografia zehatzez hornitu beharko da.
 - d. Euskara zuzen eta egoki erabili (Euskaltzaindiaren erabakien arabera). (Ikerlana, argitaratu aurretik, hizkuntza-zuzentzaile batek gainbegiratu du).


7. Dokumentazioa helbide honetara helaraziko da:
Gerriko Kultur Elkarte
XIX. Gerriko Ikerlan Beka
Elosegi 16, 1. esk.
20210-LAZKAO (Gipuzkoa)
Euskal Herria (Europa)
8. Jasotzen diren ikerlan proiektuen araberrako epaimahaia hiru erakunde antolatzaileek izendatuko dute. Honen erabakia atzera bota ezina izango da.
9. Beka **7.000,00 €**-koa izango da. Epaimahaiak proiektu bat baino gehiago diruz lagundu nahi baditu, kopuru hori guztien artean banatuko da. Epaimahaiak hala erabakitzen badu, ikerlanen kalitatea nahikoa ez delako, ikerlan-beka eman gabe utz dezake.
10. Epaimahaiaren **erabakia** 2020ko martxoaren 13an jakinaraziko da eta saritua/k izan den/diren ikertzaileak/ek 10 eguneko epea izango du/dute ikerlan-bekaren onarpena sinatzeko. Hala egin ezean, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko du/dute.
11. **Urtebeteko epea** izango du/dute ikertzaileak/ek ikerlana erabat bukatuta entregatzeko, 2021eko martxoaren erdirako, hain zuzen ere. Ikerlana argitaratu egingo denez, argitalpenerako beharrezkoak diren baldintza guztiak betez bukatuta egon beharko du: testua alde batetik eta argazkiak (bereizmen egokian) bestetik. Ikerlan bukatuaren testuak, gutxienez ere 100 orrialde estandar (2.100 digitu) izan beharko ditu.
12. Diru-laguntza hiru zatitan **ordainduko** da: onartutako kopuruaren % 40, eskatzaileak oniritzia ematen duenean, % 20 sei hilabetera, egin duen ikerlanaren eta egingo duenaren azalpen-txostena aurkeztutakoan eta % 40, ikerlan-beka onartu eta urtebetera, ikerlana erabat bukatuta aurkeztu ondoren. Epearen barruan ikerlana bukatuta entregatzen ez badu/badute, ikertzaile sarituak/ek dirua itzuli egin beharko du/dute.
13. Ikerlanen jabe, egilea/ak bera/iek izango da/dira, nahiz eta saritutako ikerlana/ak **argitaratzeko eskubidea** (beste ordainketarik gabe) erakunde antolatzaileek beren gain izango duten; beraiek bakarrik izan ere, ikerlana entregatzen denetik bi urte bete arte. Lehen argitalpen honek ez du egile-eskubiderik izango.
14. Diru-laguntzaren bat jaso duten ikerlanak argitaratzean, nahitaez, Gerriko ikerlan-bekak emandako diru-laguntzaren **aipamena** egin beharko da.
15. Deialdi honetan parte hartzeak, oinarri hauek eta aipatu epaimahaikoen erabakia onartzea dakar, ikertzaile lehiakide guztien aldetik.
- Oharra: edozein argibide behar izanez gero, dei 943-16 02 82 telefonora, bidal 943-88 79 71 faxera edota gerrikokultura@gmail.com helbide elektronikora. Informazio gehiago www.maizpide.eus, www.lazkao.eus edota www.gerriko.eus orrietan.

GERRIKO IKERLAN-BEKAKO BILDUMA

- 1.- **Basogintza Goierriin XVIII.-XX. mendeetan, harizti-pagadi eta sail zuhaizgabetuetatik gaurko pinudietara.** (1990)
Mikel Sarriegi Etxezarreta
Urbia-Oltzeko artzantza. (1990)
Andoni Aizpuru Murua
Artzantzaz artzain familia batekin. (1990)
Ainhoa Galparsoro Sarriegi
- 2.- **Etnografiako ikerlan bat.** (1991)
Nekane Arratibel Insausti
Meatzaritza Goierriin (1850-1950): Aztarnak. (1991)
Beatriz Herreras Moratinos/Josune Zaldua Goena
- 3.- **Juan Inazio Iztueta Etxeberria (1767-1845).** (1992)
Pello Joxe Aranburu/Marian Bidegain
Antton Idiakez/Iñaki Rezola
- 4.- **Goierriko biztanleria (1860-1986).** (1993)
Arkaitz Arruabarrena Goikoetxea
- 5.- **Klaudio Otaegi (1836-1890).** (1994)
Pello Joxe Aranburu/Marian Bidegain
Antton Idiakez/Iñaki Rezola
- 6.- **Migrazio-mugimenduak Olaberrian.** (1994)
Arkaitz Arruabarrena Goikoetxea
- 7.- **Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga (1740-1824) eta bere "Cristau Doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera (1858)".** (1995)
Pello Joxe Aranburu/Marian Bidegain
Antton Idiakez/Iñaki Rezola
- 8.- **Sasieta Mankomunitatea, zabortegi kontrolatua.** (1995)
Garai Arruabarrena
- 9.- **Ataungo euskara.** (1996)
Joxe Migel Azurmendi Albizu
- 10.- **Karobiak Ataunen.** (1996)
Nekane Urdangarin/Leire Munduate
- 11.- **San Adrian eta inguruen kondaira.** (1996. 2002an berrargitaratua)
Xabier Azurmendi
- 12.- **Jose Felix Amundarain Muxika (Zegama, 1755-Mutiloa, 1825), Goierriko euskal idazle ezezaguna.** (1997)

Pello Joxe Aranburu/Marian Bidegain
Antton Idiakez/Iñaki Rezola

- 13.- **Zegamako euskara.** (1997)
Joxe Migel Azurmendi Albizu
- 14.- **Otxoa Arin (1672-1743), gipuzkera literarioaren aintzindari.** (1999)
Pello Joxe Aranburu/Marian Bidegain
Antton Idiakez/Iñaki Rezola
- 15.- **Frantzisko Areso Tolosa (1869-1954), euskal etnomusikari berreskuratua.** (1999)
Nerea Muruamendiaraz Aranburu
- 16.- **Goierriko eta Tolosalde Hegoaldeko hizkerak.** (2001)
Irene Hurtado Mendieta
- 17.- **Bisoi europarra, mundutik desagertzeko arriskuan dagoen karniboroa Goierriin.** (2004)
Iñaki Irizar Unzilla, Jorge Gonzalez Esteban,
Idoia Villate Perez, Nere Amaia Laskurain
- 18.- **"Zergatik euskaraz. Goierriko euskaltegietako ikasleen motibazioak. Ikerketa psikosoziolinguistikoa"** (2006)
Maite Otegi Jauregi
- 19.- **"Eta gerra etorri zen. 36ko gerraren eragina Ataungo eguneroko bizimoduan".** (2008)
Nerea Elias Mujika eta Ainara Gorostizu Mujika
- 20.- **"Goierriko egitura industrialaren erradiografia".** (2008)
Jone Ormazabal Zabaleta
- 21.- **"Auto ibilbideak. Goierriko gazteen automobil kulturaz".** (2011)
Maddi Garcia Olaskoaga
- 22.- **"Ordiziako azoka, kasu etnografiko bat".** (2014)
Uzuri Aboitiz, Beñat Garmendia, Luxia Iriondo
- 23.- **"Turismo industrialia Goierriin eta Euskadin: Enpresak bertatik bertara bisitatzeko aukerak eta onurak".** (2017)
Goizalde Hernando Saratxaga eta Galder Guenaga Garai.
- 24.- **"Sentituz izan sortzaile! Gazteen sormen emozionala sustatzeko esku-hartze programa".** (2017)
Goretti Soroa, Aitor Aritzeta eta Nekane Balluerka.
- 25.- **"Estatu frankistaren eraikuntza Goierriin. Lehen udal-talde frankistak eta udal-langileen depurazioa".** (argitaratzeaz)
Jon Kortazar Billelabeitia.



Elizalde etxearen aurrealdea, Mutiloa. Argazkilaria: Pello Joxe Aranburu.

JOSE IGNAZIO GERRIKO (1740-1824)

Seguran (Gipuzkoan) jaio eta bere osabaren babesean ikasketak buruturik, 1763an Mutiloko benefiziatu izendatua izan zen bizi osorako. Mutiloan, gurasoek lagundurik, Jose Ignaziok "Elizalde" beretzat eta sendiarentzat etxe berria eraiki zuen. Benefiziatu, sarritan erretore ordeko eta Gaztañaga Korriedoko Diputatu nahiz herriko notarioekin lankide izan zen. Hala ere, parrokiako erretaula eraiki eta *Cristau Doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera, euskarazko platica edo doctriñetan partiturik* euskal liburua idazteak eman zioten sona Gerrikori.

Antolatzaileak



Laguntzaileak

